

Non molestatuko dut?



KARMELE GISASOLA
ZENIKAZELAIA
HERRI KIROLARIA

I majinatu kiroldegiko igerileku bat, sei kortxo ilarekin. Lerro horietako baten aurrean zutunik zaude. Lehenengo kalean adineko bi andre-gizon ikusten dituzu, beraien taularekin astiro-astiro igeri egiten. Bigarren kalean, aldiz, bi neska gazte dabiltza bata bestea baino estilo hobeagoarekin igeri, gelditu gabe. Hirugarren eta laugarren kaleetan, haurdun dauden emakumeen talde txiki bat ikusi duzu. Azkenik, bosgarren eta seigarren kaleetan, kiroldegiko monitorean argibideak jarraitzen dituen jubilatuen kuadrilla duzu.

Kale horietako batera sartu orduko, zeure buruari bi galdera hauetako zein egingo zeniokeela uste duzu? *Non molestatuko dut gutxiago?* Edo, *non molestatuko naute gutxiago?*

Sare sozialetan denbora pasa nenbilela, arestian aipatutako irudi hori islatzen duen ilustrazioa ikusi nuen eta begira gelditu nintzaion. Egoera horren aurrean, uste dut pentsatuko nukeela *non molestatu nezakeen gutxiago*. Baina askotan esaten den bezala, situazioa heldu arte, inork ez daki.

Aurtengo Euskaraldian, ez dut zalantzarik izan beste urte batez *ahobizi* rola hartzeko. Baina aurtun berrikuntza batekin: “H” daraman txapa eramatea hautatu dut. Nahiz eta nik hitanoa ez erabili, betidanik entzun dut familian

eta hurbileko hainbat tokitan, eta gus-tatuko litzaidake etxean zein kalean hitanoz dabiltzanek neurekin ere hitanoz jardutea.

Hitanoak baditu bere ezaugarriak; gure etxean, aitzak ezin zion aitonari hikaz hitz egin, bestela aitona bere onetik aterako zelako. Baina ezagutzen ditut beste familia batzuk, non semeak aitari hikaz egiten dion eta aitari ez dion molestetzen.

Kuadrillan hitanoak hausnarketarako eman digu, eta nahiz eta oso abilak ez izan horretan, WhatsAppeko konbertsazioak hitanoz idazteari ekin diogu. Izan ere, herriko beste neska kuadrilla batzuetako kideek aitortu digute beraien ere hasieran broman hasi zirela, ideia gutxirekin, baina urteak pasa ahal, erabiliz mantendu dutela. Gaur da eguna kuadrilla horrek hitanoa erabiltzen duena.

Pertsona batzuk Euskaraldia heltzeko gogoz egongo ziren, txapa jantzi eta ariketa sozial honi ekiteko, jendearen pentsamoldea aldatzeko asmoz. Beste batzuk, ordea, izena eman, txapa galdu eta lehenagoko ohiturak berdin jarraitzeari ekingo zioten. Badira beste batzuk, txapa ikusi orduko molestetzen gabiltzala pentsatzen dutenak. Kasu honetan, argi dut ez didala inporta zein eta zenbat molestatuko dudan. ●

Etxea



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Etxea euskal ohitura zaharretan hildakoen eta bizirik zeudenen espazioa zen. Hilda jaiotzen ziren umeak edo bataiatu aurretik hildakoak kanpoko horma baten ondoan lurperatzen ziren, teilatuaren babesean. Abizenak ere etxe bati lotuta zeuden, etxeak ematen zion izena bertan bizi zenari. Etxe horrek berorrek espazioa ere bazuen elizan, eta antzina leku horretan hilobiratzen ziren etxe defuntuak. Ez zen “nire” etxea, gurea baino.

Aspaldiko kontuak dira horiek. Orain “nire” da adjektibo posesiboa. “Gure” gutxiago. Dena den, kasu askotan posesio gutxi, eta bizitzeko lekurik ez.

Etxebizitza duin eta egokiaz disfrutatzeko eskubidea aitortzen du espainiar konstituzioak, eta Frantziako Estatuan oinarritzko eskubidea da. Paperezko eskubideak, askotan. Gero eta pertsona gehiagok kalea dutelako bizileku, eta beste askok duintasun eta egokitasun gabeko bizitokian bizirautea dutelako.

Ez da inoiz erraza izan, antzina ere erreteroeak gorriak ikusten zituzten alokairua ordaintzeko santomasen bueltan (pagatze egunean). Orain ere makina bat ezinean dabiltza, abusuzko alokairuak direla eta.

Etxea lehentasuna, noizko? ●